

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



MALTZURRA SENDOA BAIÑO GORAGO

Antxiña txakala gabaz ibiltzen zan janari-billa, orain lez. Illuntzea eltzen zanean sasitza lodi baten etxuten zan eta eguzkia agertu-arte antxe itxaroten eban.

Baiña egun baten elefantea aurkitu eban eta aldatu ebazan bere oiturak.

Elefanteak ezta jan nai eban eta zorionez basoan zugatz baten gaiñean erlontzi bat ikusi eban ezta dariola. Errez lortu eban zugatza beeratu eta ezta kalabaza batera sartzea eroateko.

Gero bere etxera joan zan eztiaren gozoa zumatzen, afari lez, aspaldion nai eban lez.

Bidean txakala aurkitu eban eta ezpanak miazkatuz esan eutson:

—Ai ene! Ni bai zoritxarrekoa! Dana galdu da eta orain gosez ilten nago!

—Zer jazo jatzu? —esan eutson elefanteak.

—Nire etxea erre egin da eta egunak daroadaz jan bagerik. Ni bai zoritxarrekoa! Ezin naz errekatxura be urreratu egarria kentzeko. Indar bagerik nago. Ni bai zori txarrekoa!

Elefanteak, errukia artuta, esan eutson:

—Adiskide! Ni guztiz sendoa naz! Igon egizu nire lepora eta neure etxera eroango zaitut. Gero ikusiko dogu.

—Eskerrik asko! —esan eutson txakalak elefanteak lepoan eroian eztiz beteriko kalabazea ikusita— baiña zoritzarrez zarata batzuk entzuten ba´dozuz, ez ikaratu. Neure azurrak izango dira, jana bagerik azur-utsean nagoalako.

Igon eban txakalak elefantearen gaiñera eta eztia artu eta bete-bete egin zan. Gero esan eban:

—Adiskide! Txakalak ostatu lez etxe batera sartzeko baobab zugatzaren azpian egoten gara.

Elefantea bere etxera eldu zanean, konturatu zabn txakala ez egoala bere gaiñean eta eztiz beteriko kalabazea be ez egoala an, Asarratu egin zan eta bidea atzera egin eban bere biotz zabalari irri egin eutsonari kontuak eskatzeko.

Baobab zugatzaren ondora eldu zanean, eragin egin eutson, baiña alperrik.

Tronpea luzatu eban baiña ez eban ikusi txakalaren gerizarik be, baiña abots bat entzun eban goiko abarretatik iñotsola:

—Adiskide! Ba dakit txarto egin didana zure ezitia jateagaz. Zigorra irabazi dot. Baiña gu txakalok ezin gara zigortuak izan termitak dagozen zugatzaren sustraiakaz baiño.

Urrean egoan termiten moltzo bat, bost-bat metroko goierea eukana. Elefanteak bota eban termita-leku ori, baiña an ez egoan sustrairik. Asarratu zan eta onen orroa aundiak bildurgarriak ziran.

Baiña txakala bare egoan eta esan eban:

—Zu! Sustraiak aurkitzen ez ba´dozuz termiten artean, begiratu egizu zeure aurrera, ibilli eguzkiorantza eta billatu sustraiak. Eta orreikaz baobab landarea bota egingo dozu eta bear dan lez zigortuko nozu.

Arin joan zan elefantea. Baiña bide luzea egin eban eta eguzkia oztendu egin jakon. Konturatu zan iruzur egin eutsoela. Biurtu zan txakala zigortzeko, baiña au baibab´etik jatsi eta sasitzara joan zan, arantzadun askazietara sartzeko.

Orduan txakala geldi egon zan elefantearen bildurrez eta an dago. Beti urteten dau eguzkia sartzen danean eta janari-billa joaten da gosea kentzeko.

† OLAZAR´tar Martin´ek